



2002/11/21eko prentsa-oharra

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA (ETHI)**2002ko urria**

BIDAIARIEN SARRERAK % 5 GEHITU DIRA 2002KO URRIAN

Gaualdiak % 7 igo dira iazko hil beraren aldean.

2002ko urrian, 135.802 bidaiari-sarrera erregistratu dira Euskal AEko hotel-establezimenduetan, aurreko urteko hil berean baino 6.000 sarrera gehiago, hau da, % 5 gehiago, Eustatek eskainitako datuen arabera. Bidaiari-sarrerak % 13 gehitu dira Bizkaian, eta ez dira ia aldatu Araban (% +1) eta Gipuzkoan (% -1).

Atzerriko bidaiarien sarrerak % 14 gehitu dira, estatutik datozenen aldean asko (% 1). Atzeritik datozen bidaiarien kopurua nabarmen igo da Gipuzkoan (% 32) eta neurritsuago Araban (% 8) eta Bizkaian egonkortu egin dira (% 0). Estatutik datozen bidaiariak ere nabarmen gehitu dira Bizkaian (% 20) eta Gipuzkoan (% -13) Araban (% -2) baino gehiago urritu dira.

Estatutik datozen bidaiarien artean, batik bat Madrildik datozenak gehitu dira, % 17 gehitu baitira. Pixka bat gutxitu dira, aitzitik, Andaluzia, Aragoi, Asturias eta Gaztela eta Leondik etorritakoak, besteak beste. Atzerriko bidaiarien artean, aipatzekoa da, Frantziatik, Erresuma Batutik eta USA-Kanadatik datozen bisitariek izan duten gehikuntza; pixka bat urritu dira, oster, Italiatik eta Iberoamerikatik etorriak.

2002ko urrian, 263.955 gaualdi erregistratu dira, aurreko urteko hil berean baino 17.500 gehiago izan dira, hau da, % 8 gehitu dira ehuneko-balioetan. Egindako gaualdien kopurua asko hazi da Bizkaian (% 24), baina jaitsi egin da Araban (% -7) eta Gipuzkoan (% -2).

Euskal AEko hoteletan ostatu hartu duten bidaiarien batez besteko egonaldia % 2 hazi da 2002ko urrian, iazko 1,90 egunetik aurtengo 1,94 egunera.

Plazakako betetze-maila % 2 goratu da Euskal AE osoan eta gelakakoa % 1.

Nekazalturismoa: gehitu egin dira bidaiarien sarrerak (% 14) eta gualdiak (% 12)

Euskal AEko nekazalturismoko establezimenduetan, 6.072 bidaiari-sarrera izan dira 2002ko urrian, aurreko urtean baino % 14 gehiago: % 18 gehitu dira Bizkaian, % 17 Gipuzkoan, eta % 1 urritu Araban. Gehikuntza hori Estatutik datozen bisitariek eta atzerrikoek eragin dute, % 9 eta % 72 ugaritu baitira, hurrenez hurren, Euskal AEko guztizkoan.

Egindako gualdiak 12.985 izan dira, hau da, 2001eko urrian baino % 12 gehiago, eta horrek Bizkaian (% 21) eta Gipuzkoan (% 14) eragin du, Araban % 10 gutxiago izan baitira.

Batez besteko egonaldia % 2 laburtu da Euskal AE osoan. Araban % 9 moztu da eta Gipuzkoa % 3, eta Bizkaian % 2 luzatu dira.

Urteko lehen hamar hilabeteetan, aurreko urtean baino 9.500 bidaiari-sarrera eta 26.000 gualdi gehiago zenbatu dira.

Argibide gehiagorako:

 Eustat	Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz Tel.: +34-945 017 500 Faxa: +34-945 017 501 E-maila: eustat@eustat.es Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Tel.: +34-945 017 506 Faxa: +34-945 017 501 Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es
---	--

1. taula: hileko emaitzak

EUSKAL AE						ARABA						BIZKAIA						GIPUZKOA					
10/2002	%	10/2001	%	D%		10/2002	%	10/2001	%	D%		10/2002	%	10/2001	%	D%		10/2002	%	10/2001	%	D%	

HOTEL ESTABLEZIMENDUAK

BIDAIARIEN SARRERA	135.802	100	129.628	100	5	24.840	100	24.715	100	1	55.838	100	49.315	100	13	55.124	100	55.598	100	-1
Estatukoa	93.763	69	92.902	72	1	18.913	76	19.245	78	-2	39.676	71	33.197	67	20	35.174	64	40.460	73	-13
Atzerrikoak	42.039	31	36.726	28	14	5.927	24	5.470	22	8	16.162	29	16.118	33	0	19.950	36	15.138	27	32
GAUALDIAK	263.955	100	246.466	100	7	41.578	100	44.926	100	-7	119.812	100	96.868	100	24	102.565	100	104.672	100	-2
Estatukoa	178.691	68	173.592	70	3	31.653	76	34.561	77	-8	79.539	66	61.035	63	30	67.499	66	77.996	75	-13
Atzerrikoak	85.264	32	72.874	30	17	9.925	24	10.365	23	-4	40.273	34	35.833	37	12	35.066	34	26.676	25	31
BATEZ BESTEKO	1,94		1,90		2	1,67		1,82		-8	2,15		1,96		10	1,86		1,88		-1
PLAZAKAKO BETETZE-MAILA	48,45		47,27		2	48,49		53,32		-9	54,67		46,05		19	42,75		46,15		-7

NEKAZARISMO

BIDAIARIEN SARRERA	6.072	100	5.337	100	14	1.073	100	1.081	100	-1	2.541	100	2.149	100	18	2.458	100	2.107	100	17
Estatukoa	5.390	89	4.941	93	9	940	88	1.045	97	-10	2.271	89	1.944	90	17	2.179	89	1.952	93	12
Atzerrikoak	682	11	396	7	72	133	12	36	3	269	270	11	205	10	32	279	11	155	7	80
GAUALDIAK	12.985	100	11.641	100	12	2.220	100	2.464	100	-10	5.515	100	4.552	100	21	5.250	100	4.625	100	14
Estatukoa	11.076	85	10.486	90	6	1.754	79	2.313	94	-24	4.961	90	3.952	87	26	4.361	83	4.221	91	3
Atzerrikoak	1.909	15	1.155	10	65	466	21	151	6	209	554	10	600	13	-8	889	17	404	9	120
BATEZ BESTEKO	2,14		2,18		-2	2,07		2,28		-9	2,17		2,12		2	2,14		2,20		-3
PLAZAKAKO BETETZE-MAILA	20,12		18,74		7	18,60		20,97		-11	27,04		23,02		17	16,30		15,12		8

Iturria: EUSTAT